

Pr: Diaria
Tirada: 250
Dif: 250

Iraide IBARRONDO | BILBO

Calixto Bieitok, Arriaga Antzokiko zuzendari artistikoak, "Erresuma/Kingdom/Reino" William Shakespeareren tragedietan oinarritutako antzerki-ekoizpen berria aurkeztu zuen atzo Bilboko Arriaga Antzokian. 1960ko hamarkadan girotutako proposamen artistikoak poesia, gerra, mendekua eta gizakien ezinegon primarioenak uztartuko ditu. Hasiera batean antolatutako estreinaldia covid-19agatik atzeratu behar izan ostean, azkenik, ostiral honetan, otsailaren 11n, estreinatuko dute antzezlanaren euskaraz Arriagan.

Antzezleei dagokienez, euskal panorama artistikoko izen entzutetsuenetako batzuk fitxatu ditu Bieitok obra oholtzara igotzeko: Josep Maria Pou, Joseba Apaolaza, Lucia Astigarraga, Ylenia Baglietto, Ainhoa Etxebarria, Miren Gaztañaga, Iñaki Maruri, Koldo Olabarri, Lander Otaola, Eneko Sagardoy eta Mitxel Santamarina.

Guztira lau emanaldi eskainiko dituzte euskaraz eta Bernardo Atxaga idazleak izan du obra euskaratzeko ardura. Atxagak aitortu zuenez, euskaratzea ez da inolaz ere lan makala izan. Atxagak azaldu zuenez, 65 urte pasatu dira jada Bedita Larrakoetxeak, erbestean zegoen bitartean, lehen aldiz Shakespeareren obrak euskaratu zituenetik. Hori horrela, Atxagak azaldu zuen Larrakoetxearen testuen egokitzapen lana izan behar zena itzulpen lan bilakatu dela azkenean. «Zein da hizkuntzaren ezaugarrietako bat? Egunero hiltzen eta egunero berpizten dela. Hizkun-

Shakespeareren tragediak taularatuko dituzte Bilbon

Calixto Bieitok zuzendutako «Erresuma/Kingdom/Reino» antzezlanaren estreinatuko dute ostiral honetan, otsailak 11, Bilboko Arriaga Antzokian. Obra Shakespeareren tragedietan

oinarritzen da eta Bernardo Atxaga idazleak izan du lana euskaratzeko ardura. Antzezlanak mendekua, bortizkeria, maitasuna eta gorrotoa bezalako sentipenak ditu ardatz.

TALENTUZ BLAI

Calixto Bieitok antzezle

taldea goraipatu zuen atzoko aurkezpenean «Europa mailako konpainia» osatu dutela azpimarratuta. Bilbora hurbiltzerik izan ez zuen Josep Maria Pouren lanari aipamen berezia egin zion.

tza denboran zehar ikaragarri aldatzen da errealtatetik oso gertu dagoelako, eta, errealtate aldatzen den heinean, hizkuntza bera ere aldatzen da. Hitz baten esanahiak ez du zertan berdina izan behar 1950. urtean eta 2000. urtean. Horixe gertatu zitzaidan Larrakoetxearen testuak egokitzerakoan», gogoratu zuen «Obabakoak» ipuin bildumaren autoreak. Hori dela eta, itzulpen prozesuan, Larrakoetxearen bertsiotz gain, ingelesezko, frantsesezko eta espainolezko bertsiotz ere izan ditu esku artean Atxagak.

Era berean, Atxagak esplika zuen testuaren azken bertsiotzaren testuarekiko eta entzuleekiko «leiala» izaten ahalegindu dela, «bien arteko oreka mantenduz».

Giza arima muinean

Obraren mamian giza arimaren sentipen gordinenak daude: traizioa, botere nahia, gerra,

mendekua, maitasuna eta bortizkeria, besteak beste. Horregatik, pertsonaien barne kontraste eta intentsitatea dela eta, interpretazioak «deigarriak» izango direla aurreratu zuten artistek.

Nahiz eta obra Erdi Aroan girotuta ez egon, Ricardo II.a, Ricardo III.a eta Enrique IV.a bezalako Shakespeareren pertsonaia ezagunak erraz identifikatu ahaliko direla esplikatzen zuen Bieitok. Horretarako, agertokiko pantaila batean pertsonaien izenak agertuko dira.

«Shakespeare ezagutzen ez duenak antzerkiaren gozatuko du eta ezagutzen duenak hari solteak topatuko ditu, baina ez esanahirik gabeak. Hari solte bakoitzak zentzua du bere horretan eta hori antzerkigintzan ikustea arraroa da, eta are arraroagoa euskaraz», adierazi zuen Sagardoy aktoreak.

«Miraria da»

Antzerkiaren aurkezpenean

egon zen Juan Mari Aburto Bilboko alkateak, Bieitok eta Atxagak gauza bera nabarmendu zuten ostiraleko estreinaldiari begira; «mirari bat» dela. Izan ere, antzezlanaren sortze prozesua pandemiak erabat baldintzatuta egon da eta entseguak antolatzea lan korapilatsua izan da oso. Testuinguru horretan, Bieitok lantaldeak egindako ahalegina ikusita «oso harro» sentitzen dela jakinarazi zuen.

Emanaldiei dagokienez, otsailaren 11n, 12an 13an eta 24an izango dira euskarazko saioak Bilboko Arriaga Antzokian. Otsailaren 17an, ostera, «Erresuma/Kingdom/Reino» espainolez estreinatuko dute eta, hilak 19, 20, 25, 26 eta 27ko emanaldiak ere espainolez izango dira. Azkenik, Sagardoy aurreratu zuen espainiar Estatuan bira bat egitea ere aurrerakusita dutela, Madrilen emanaldi bat eginez, baina ez zuten datarik zehaztu.

«Erresuma/Kingdom/Reino» antzezlaneko aktore taldea, atzoko Arriaga Antzokiko aurkezpenean oholtza gainean. Argazkiaren erdian Juan Mari Aburto Bilboko alkatea ikus daiteke. Aburtoaren ezkerrean, berriz, Calixto Bieito Arriagako zuzendari artistikoa, eta, eskuinean, obra euskarara itzuli duen Bernardo Atxaga idazlea. Ariz LOIOLA | FOKU

